



**EBAZPENA, INGURUMEN JASANGARRITASUNEN SAILBURUORDEAREN, ZEINAREN BIDEZ EBAZTEN BAITA, 2024 EKITALDIRAKO, URRIAREN 27KO 202/2015 DEKRETUAN ARAUTUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA (DEKRETU HORREK INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOAK EGITEKO ENPRESEI EMATEN ZAIZKIEN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITU).**

### EGITATEAK

1.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresentzako dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen deialdia egin zen 2024ko ekitaldirako. Halaber, hilabeteko epea eman zen, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eskabideak aurkezteko.

2.- 2024ko urtarrilaren 29an amaitu zen eskabideak aurkezteko epea. Guztira 118 eskabide jaso ziren, horietatik 55 prozedura arrunterako eta 63 prozedura errazturako, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 4. artikuluan eta 2023ko abenduaren 19ko Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2024ko maiatzaren 27ko Ebazpenaren bidez, Balorazio Epaimahaia izendatu zen, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.- 2024ko ekainaren 12an, Balorazio Epaimahaia bildu zen, dirulaguntzen deialdi honetan aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, eta aho batez onartu zituen deialdian aurkeztutako eskabideei laguntzak emateko proposamenak.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1 - Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresentzako dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluan arabera, Balorazio Epaimahaiak, horretarako eraberrita, dagokion ebazpen-proposamena egin du, eta, aurrekontu-mugetara egokituta, dekretu hori aplikatuz dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak zehaztu ditu, bai eta dirulaguntzaren zenbatekoa, ezetsitako eskabideak eta ezesteko arrazoiak ere.

2 - Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak eskumena du onuradunak eta eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoak behin betiko zehazteko, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan eta oraindik indarrean dagoen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

**IKUSITA** urriaren 27ko 202/2015 Dekretua, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresentzako dirulaguntzak arautzen dituena; 2023ko abenduaren 19ko Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen deialdia egiten duena 2024ko ekitaldirako; abenduaren 21eko 20/2023 Legea, dirulaguntzen araubidea arautzen duena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa; ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak,

### EBAZTEN DUT

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ





**Lehenengoa.-** Ebazpen honen I. eta III. eranskinetan jasotako enpresei dirulaguntza ematea, bertan zehazten diren proiektuetarako eta zenbatekoetan.

Dirulaguntza horiek eskatutako inbertsioaren diruz lagun daitezkeen kostuen ehuneko bat dira, kostu garbiak kalkulatuta.

**Bigarrena.-** Eskatutako dirulaguntza ukatzea ebazpen honen II. eta IV. eranskinetan adierazitako enpresei, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

**Hirugarrena.-** Atzera egin duten dirulaguntzen eskabideen zerrenda argitaratzea ebazpen honen V. eranskinean.

**Laugarrena.-** Dirulaguntza ordaintzeko, onuradunek diruz lagundutako inbertsioa benetan gauzatu dela eta horren kostua agiri bidez egiaztatu beharko dute.

**Bosgarrena.-** Onuradunek, halaber, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresentzako dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 20. artikuluan jasotako gainerako betebeharrak bete beharko dituzte.

**Seigarrena.-** Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitara dadila agintzea, dirulaguntzak emateko prozedura guztietan nagusi izan behar duen publizitate printzipioa betez.

**Zazpigarrena.-** Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean

**Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea  
Viceconsejero de Sostenibilidad Ambiental**

**Izpta./Fdo.: JOSU BILBAO BEGOÑA**  
(Elektronikoki sinatuta/Firmado electrónicamente)



## I. ERANSKINA. PROZEDURA ARRUNTAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK

Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
001-PROT-2024	ZABALGARBI, S.A.	Gas azidoen isuriak murrizteko labean xurgatzailea injektatzeko azterketa	114.768,00	57.384,00
002-PROT-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Aluminiozko labeetan gasen tratamendua instalatzea Arrasateko galdategian	1.122.649,44	112.264,94
006-PROT-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Harea bahetzeko sistema Eskoriatzako burdinurtzeko instalazioan	165.000,00	66.000,00
007-PROT-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Harea bahetzeko sistema Uribarriko burdinurtzeko instalazioan	165.000,00	66.000,00
008-PROT-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Uribarriko burdinurtzeko plantan zakutatutako hondarrak eta xehekiak balorizatzeko instalazioa	131.841,00	52.736,40
009-PROT-2024	LIMPIEZAS NERVIÓN SOCIEDAD ANÓNIMA	LINERSAko isuri atmosferikoak hobetzea	176.895,00	70.758,00
010-PROT-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Zuntz-zementuzko estalkia kentzea Usurbilgo burdinurtzeko instalazioetan (kartoioentziak + muntaketa)	87.957,51	35.183,00
011-PROT-2024	ULMA FORJA S.COOP.	Lurzoruak iragazgaiztea Ulma forja plantan, Oñatin	35.880,00	35.880,00
013-PROT-2024	SOGECAR, S.A.	Disolbatzaileak balorizatzeko instalazioko zamalanetako prozesuak automatizatzeko inbertsioa.	483.283,88	200.000,00
015-PROT-2024	TEKNIA ELORRIO, S.L.	Hondakinen sorrera murriztea, edukiontzi berrerabilgarrietan inbertsioak eginez.	41.480,00	16.592,00
016-PROT-2024	CVC SPRING, S.A.	Ziklo hutseko makina bat eskuratzea, disolbatzaileekin erabiltzeko.	237.515,00	47.503,00
017-PROT-2024	EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.	Emisioak murriztea bide-azpiegituretan: eraikuntza- eta erabilera-fasea	91.160,00	36.464,00
019-PROT-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Aretxabaletako galdaketa-plantako mantentze-labea garbitzean sortutako isuri barreiatuak minimizatzea	80.000,00	32.000,00



Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
020-PROT-2024	LEZAMA DEMOLICIONES, S.L.	VISARCE - Azterketa teknologikoa: Instalazio mugikorreko egiturazko hormigoizko agregakin birziklatuaren kalitate-kontrol jarraiturako computer vision sistemen bideragarritasuna, CE markarekin lerrokatuta.	22.000,00	13.200,00
023-PROT-2024	ORLOGA, S.A.	Biofindegi- eta balorizazio-eredu berri baten bideragarritasun-azterketa. Viabio.	68.003,00	47.602,10
025-PROT-2024	TXAIRO LOGISTICA, S.L.	Gas hozgarriaren isuriak (ihesak) kontrolatzeko sistema adimenduna instalatzea eta martxan jartzea, eta PCA txikiagoa duen batek haren bilakaera egitea.	30.233,77	12.093,51
026-PROT-2024	SIDENOR ACEROS ESPECIALES, S.L.	Xurgapen-sistema berria ijezketa-zerretan	608.000,00	200.000,00
029-PROT-2024	NAPARRA BERGARA, S.L.	Industriatik datozen material erraustuen tratamenduan espezializatutako lerro bat ezartzea	475.130,48	200.000,00
030-PROT-2024	SUMINISTROS UTILLAJES DE PRECISIÓN SUIZO, S.L.	Hutsean funtzionatzen duten piezak garbitzeko eta koipegabatzeko prozesu berria ezartzea, alkohol aldatua duen disolbatzailearekin	72.752,00	43.651,20
033-PROT-2024	CONSTRUCCIONES INTXAUSTI, S.A.	Miribillako (Bilbo, Bizkaia) Mina San Luis kaleko 24. lursaileko lurzorua berreskuratzea	81.519,53	81.519,53
034-PROT-2024	DRAXTON EUROPE ASIA, S.L.	Desmoldekatze-eremuan isuri barreiatuak murrizteko xurgapen-instalazio berria	1.000.000,00	200.000,00
035-PROT-2024	INDUSTRIAS MUGICA, S.A.	Gillotina, hondakina egokitzeko, kautxuzko hondakina lehengai bihurtzeko	137.000,00	75.350,00
036-PROT-2024	NOVA RECYD, S.A.	CNC mekanizazio-instalazioko xurgapena/iragazketa. Trukagailua - tenperatura-berreskuratzaila	229.474,00	80.315,90
038-PROT-2024	BETSAIDE, S.A.L.	Kutsadura akustikoa murriztea Betsaideren B1 ekoizpen-lerroan	325.000,00	130.000,00
039-PROT-2024	INDUSTRIAS AMAYA TELLERÍA, S.A.	Mekanizazio-lainoak iragaztea	80.200,00	28.070,00
040-PROT-2024	CIE AUTOMOTIVE GOIAIN, S.L.U.	Forjaketako estanzazio-lerrorako bi xurgapen-eta iragazketa-talde eskuratzea, tximinia bidez iragazitako airearen irteerarekin	200.000,00	70.000,00



Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
041-PROT-2024	METAGRA BERGARA, S.A.	Erretilu itzulgarriak erostea eta automobilgintzako piezen erretiluak garbitzeko instalazioa	109.736,00	54.868,00
043-PROT-2024	ECOMAGNET, S.L.	Zuzeneko birziklatze-prozesu baten bidez berrerabiltzeko baztertutako NDFEB imanak egokitzeko inbertsioa	133.767,20	73.571,96
045-PROT-2024	EKOTRADE RCDS, S.L.	EEHen zatiki finak bereizteko metodo berria	565.500,00	170.000,00
046-PROT-2024	BIRZIPLASTIC, S.L.	Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuetatik eratorritako hondakin termoplastikoak birziklatzea eta balorizatzea, prozesu aurreratuen bidez	245.879,00	135.233,45
047-PROT-2024	EKOTRADE RCDS, S.L.	EEH eta HHSen balorizazio-lerro berri baten bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren azterketa	60.000,00	30.000,00
050-PROT-2024	LURDOIA, S.L.	Lurzoruak balorizatzeko ingurumen-inbertsioa	7.095.000,00	200.000,00
052-PROT-2024	ASOC BASKEGUR	Bioinarritutako soluzio industrializatuak dituzten obren eta horiek ingurunean duten eraginaren azterketa konparatua	25.000,00	17.500,00
054-PROT-2024	ESNELAT, S.L.	ESNELATen instalazioko hondakin-urak arazteko sisteman hobekuntzak eta berrikuntzak sartzea	208.438,87	83.375,55
055-PROT-2024	MAXAMCORP INTERNATIONAL	Pieza metalikoak koipegabetzeko makina ordezte	285.000,00	114.000,00
057-PROT-2024	LEZAMA DEMOLICIONES, S.L.	In situ baloriza daitezkeen materialak bereiztea, inplementuen bidez	81.075,00	36.483,75
058-PROT-2024	HONDANER, S.L.	Hondakinetatik eratorritako erregaia (H.E.E.) prestatzeko instalazioa optimizatzea.	237.526,00	130.639,30


**II. ERANSKINA: PROZEDURA ARRUNTAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDU EZIN DAITEZKEEN PROIEKTUAK**

Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Arrazoaia
003-PROT-2024	DEYDESA 2000, S.L.	Hondakin ez-arriskutsuen estalkia	Ez da dirulaguntzaren helburua.
004-PROT-2024	REYDESA RECYCLING, S.L.	Hondakin ez-arriskutsuen estalkia	Enpresak ez ditu betetzen onuradun izateko baldintzak.
005-PROT-2024	REYDESA RECYCLING, S.L.	Partikulak biltzea	Enpresak ez ditu betetzen onuradun izateko baldintzak.
018-PROT-2024	TRIENEKENS PAIS VASCO, S.L.	Urnietako (Gipuzkoa) Erraztu industrialdean dagoen ontzi arinak konpontzeko instalazioko pabilioirako proposatutako hobekuntzak.	Ez da dirulaguntzaren helburua.
044-PROT-2024	EKOTRADE RCD'S S.L.	EEH eta HHSen balorizazio-prozesurako lerro berria	Deialdi honetan bertan aurkeztutako bideragarritasun-azterlan baten mende dago.
051-PROT-2024	CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.	Obrako in situ lanetarako EEHetan inpropioak detektatzeko ekipo berria	Enpresak ez ditu betetzen onuradun izateko baldintzak.
053-PROT-2024	CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.	Obran in situ deseraikitze jasangarrirako ekipo berriak	Enpresak ez ditu betetzen onuradun izateko baldintzak.
056-PROT-2024	INMOBILIARIA BEGASA, S.A.	MAGEFESAren instalazio zaharretan dauden hondakin ez-arriskutsuen garraioa eta kudeaketa	Ez da dirulaguntzaren helburua.



## III. ERANSKINA: PROZEDURA ERRAZTUAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK

Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
003-PROTS-2024	ORBEA SDAD COOP LTDA	Bizikleta-piezetan scrap bidez birziklatutako karbono-zuntza erabiltzea bideragarria den aztertzea.	17.000,00	8.500,00
004-PROTS-2024	FUNDACIÓN RESIDUO CERO	Orioko zero zabor hozkailua	15.555,58	3.111,12
005-PROTS-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Bergarako aluminio-galdaketan bigarren mailako materialen ingurumen-kalitate egokia egiaztatzeko azterlana	3.304,80	1.652,40
006-PROTS-2024	FUNDACIÓN RESIDUO CERO	Bermeoko zero hondakin hozkailua	9.863,25	1.972,65
007-PROTS-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Arrasateko aluminio-galdaketan bigarren mailako materialen ingurumen-kalitate egokia egiaztatzeko azterlana	3.304,80	1.652,40
008-PROTS-2024	DEDIEGO, S.L.	EEH deseraikitze selektiboa	7.700,00	4.235,00
009-PROTS-2024	HORMIGONES Y MORTEROS AGOTE, S.L.	Agote instalazioetako zuntz-zementua ezabatzea	49.145,15	29.487,09
010-PROTS-2024	MÁQUINAS PNEUMÁTICAS ROTATIVAS XXI, S.L.	EMAS ziurtagiria	5.950,00	2.975,00
012-PROTS-2024	FUNDICIONES FUMBARRI-DURANGO, S.A.	Etorkizuneko forjaketa- eta galdaketa-sektorean erabilgarri dauden teknikarik onenei buruzko erreferentziako dokumentuan ezarritako baldintzen betetze-maila ebaluatzeko ingurumen-diagnostikoa.	14.620,00	8.772,00
013-PROTS-2024	ZORROZA GESTIÓN, S.L.	Zuntz-zementua kentzea. Xaflen nabe-sektorea	48.032,50	28.819,50
016-PROTS-2024	BOJ OLAÑETA, S.L.	Zuntz-zementua kentzea	7.500,00	3.000,00
018-PROTS-2024	VOESTALPINE RAILWAY SYSTEMS JEZ, S.L.	Etorkizuneko forjaketa- eta galdaketa-sektorean erabilgarri dauden teknikarik onenei buruzko erreferentziako dokumentuan ezarritako baldintzen betetze-maila ebaluatzeko ingurumen-diagnostikoa.	14.620,00	7.310,00
020-PROTS-2024	GUREA ARQ. S. COOP. PEQUEÑA	Enpresaren ziurtagiria, UNE-EN ISO 14006:2020 ekodiseinuaren kudeaketaren arabera	3.549,00	1.774,50
022-PROTS-2024	ECENARRO, S.COOP. LTDA	Hotzeko estanzazio-makina baterako lainoak eta keak iragazteko ekipoa.	34.953,00	10.000,00



Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
023-PROTS-2024	FAGOR EDERLAN, S.COOP.	Eskoriatzako aluminioa galdatzeko plantako gangaren zuntz-zementuzko estalkia kentzea	13.719,58	5.487,83
024-PROTS-2024	EDERTEK, S.COOP.	Automobilgintzako piezetan pitzadurak detektatzeko likido sarkorren saiakuntzetan sortutako hondakina biltzeko inbertsioa	31.900,00	10.000,00
025-PROTS-2024	ECENARRO, S.COOP. LTDA	Zuntz-zementuzko plakak kentzea Ecenarroko industria-nabearen estalkitik	24.257,17	12.128,59
026-PROTS-2024	PROCAST GUSS ESPAÑA, S.L.	Etorkizuneko forjaketa- eta galdaketa-sektorean erabilgarri dauden teknikarik onenei buruzko erreferentziako dokumentuan ezarritako baldintzen betetze-maila ebaluatzeko ingurumen-diagnostikoa.	14.620,00	8.772,00
027-PROTS-2024	EMAÚS GPUZKOA, S.L.	TEEHen osagaiak berreskuratzeko eragiketen bideragarritasun-azterketa - Gailurrak (FR4)	20.000,00	10.000,00
028-PROTS-2024	IAM-CUT, S.L.	Uraren aprobetxamendua	16.364,88	9.818,93
031-PROTS-2024	KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES S.COOP.	Birziklapen berdea	200.000,00	80.000,00
032-PROTS-2024	INNOVATION TREE, S.L.	Ion-litiozko bateriak balorizatzeko planta berri baten inbertsio-proiektua	494.889,00	200.000,00
033-PROTS-2024	SOL HIDROGENO VERDE, S.L.	Biohondakinen balorizazioa jatorrian	300.522,50	180.313,50
034-PROTS-2024	YÁRRITU, S.A.	EMAS erregistroa berritzeko proiektua. Yarritu	7.800,00	3.000,00
035-PROTS-2024	YÁRRITU, S.A.	UNE EN 13108-8: 2018 arauaren arabera berreskuratutako asfaltoaren CE ziurtagiri markatuko proiektua, nahasketa bituminosoak fabrikatzeko osagai gisa	10.886,50	2.500,00
037-PROTS-2024	HONDAKIN, S.L.	Ontziak garbitzeko eta berreskuratzeko prozesu integrala	238.451,00	143.070,60
040-PROTS-2024	ASFALTADOS OLARRA, S.A.	Asfaltozko nahasketa epel eta beroen bizi-zikloaren analisia (BZA) eta produktuaren ingurumen-adierazpena (DBE)	12.900,00	6.450,00
041-PROTS-2024	GIPUZKOAKO ZEPa SIDERURGIKOAK, S.L.	GZS: Negozio lerro berria: Hondakin erregogorren balorizazio Zumarragako instalazioetan	668.082,00	200.000,00
042-PROTS-2024	KIT MAIUR 2010, S.L.	Pabiloiko estalkitik zuntz-zementua erauztea	78.922,80	40.000,00
050-PROTS-2024	SOL HIDROGENO VERDE, S.L.	Biohondakinak jatorrian HUAn balorizatzeko bideragarritasun-azterketak	19.500,00	10.000,00





Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
053-PROTS-2024	ENVASES METALÚRGICOS DE ÁLAVA, S.A.	Zuntz-zementuzko estalkia kentzea Arabako ontzi metalurgikoen instalazioko bulego-zonatik	78.850,00	31.540,00
054-PROTS-2024	HIJOS DE JUAN DE GARAY, S.A.	Sare elektrikoaren segmentazioa 50001era egokitzeko, nahitaezkoa EBn 2027an	36.400,00	1.820,00
055-PROTS-2024	ELMUBAS IBERICA, S.L.	Elmubas 2024 ingurumen-ziurtagiriak	5.700,00	2.850,00
056-PROTS-2024	HIJOS DE JUAN DE GARAY, S.A.	Soldatutako altzairuzko hodiak kalibratzeko prozesuan olio erreaktiboa berreskuratzeko bideragarritasun-azterketa.	19.000,00	9.500,00
058-PROTS-2024	DEBA BEHEKO KONTENEDOREAK, SOCIEDAD LIMITADA	Nahasketa-frakzioetik datozen materialak berreskuratzea	313.515,44	188.109,26
060-PROTS-2024	ALBERDI MEKANIZATU LANAK, S.L.	Ekoizpen makinaren olio lainoen murrizketarako sistemaren inbertsioa	28.980,00	17.388,00
061-PROTS-2024	ASFALTOS Y HORMIGONES AUBIDE, S.L.	Errepideetako fresaketa berrerabiltzea, tasa altuetan, nahasketa epelak fabrikatzeko tekniken bidez	30.546,39	10.000,00
062-PROTS-2024	LUCART TISSUE & SOAP, S.L.	Hondakin plastikoaren aprobetxamendua Arangurengo lantegian	40.000,00	10.000,00
063-PROTS-2024	ECOPAJA BIOCONSTRUCCIÓN MODULAR, S.L.	Ingurumena zaintzen bioeraikuntzaren bidez	18.100,00	9.955,00
064-PROTS-2024	ZABOR RECYCLING, S.L.	Metalen balorizazio zehatza	800.000,00	200.000,00
065-PROTS-2024	FUNDACIÓN LANTEGI BATUAK	Garbiketa industrialeko ekipoa ordeztzeko inbertsioa	40.000,00	10.000,00
066-PROTS-2024	FUNDACIÓN LANTEGI BATUAK	Etxebarriko lantokiko estalkia ordeztzeko inbertsioa	80.000,00	32.000,00
067-PROTS-2024	CNC LAN, S.A.	Piezak koipegabatzeko eta garbitzeko lerro bat ezartzea, elementu kaltegarriak kenduz (perkloroetilenoaren ordezkari alkohol aldatuak jarriko dira)	80.000,00	10.000,00
068-PROTS-2024	UGARTEBURU, S.A.	Dürr-en Ecoclean gamako pieza ekokoreak koipegabatzeko eta garbitzeko linea bat instalatzea, elementu kaltegarriak kenduz, baliabideen erabilera optimizatuz (ura, prozesuko fase guztietan erabat hutsean egindako tratamendu-zikloaren bidez) eta hondakinak balorizatuz.	40.000,00	10.000,00



Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
069-PROTS-2024	INOXCRA, S.L.	Altzairu herdoilgaitzezko txirbila egokitzea balorizazio-eragiketak optimizatzeko	80.000,00	10.000,00
070-PROTS-2024	BETSAIDE, S.A.L.	Galdaketarako harea berreskuratzeko sistema berriak instalatzea	40.000,00	10.000,00
071-PROTS-2024	ULMA FORJA, S.COOP.	Euri-uren bilketa eta solido esekien dekantagailua edota hidrokarburoen bereizgailua (Lazkao)	40.000,00	10.000,00
072-PROTS-2024	ULMA FORJA, S.COOP.	Euri-uren bilketa eta solido esekien dekantagailua eta/edo hidrokarburoen bereizgailua (Zubillaga)	40.000,00	10.000,00
073-PROTS-2024	MECANINOR MECANIZADOS, S.A.	Lainoak iragaztea artezketa-sekzioan	35.492,00	10.000,00
074-PROTS-2024	PRECITOR PRECISION, S.L.	Torneaketa-ataleko makina bakoitzean birrinketa-unitateak instalatzea, olio bustitako torneaketa-txirbil metalikoaren konglomeratu-hondakinaren kudeaketa optimizatzeko	40.000,00	10.000,00
075-PROTS-2024	BEFESA ZINC ASER, S.A.	Prozesuko hainbat puntutan isuri barreiatuak murriztea, ixteko eta xurgatze-ekipoak ezarriz edo lehengaia egokituz.	40.000,00	16.000,00
076-PROTS-2024	BEFESA ZINC ASER, S.A.	Isuriak hobetzea eta instalazioko barneko airearen kalitatea kontrolatzea	40.000,00	10.000,00



## IV. ERANSKINA: PROZEDURA ERRAZTUAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDU EZIN DAITEZKEEN PROIEKTUAK

Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua	Arrazoa
001-PROTS-2024	ZUNIBAL, S.L.	Ekonomia zirkularreko diagnostikoa eta ibilbide-orria.	Ez da dirulaguntzaren helburua.
002-PROTS-2024	BEATRIZ MARTÍNEZ HERNÁNDEZ	Auto-garbitzea produktu biodegradagarriekin eta vending-arekin.	Ez da dirulaguntzaren helburua.
017-PROTS-2024	HIERROS Y METALES GUTRAM, S.L.	Hondakin izaeraren amaierako sistemak ezartzea	Enpresak ez ditu betetzen onuradun izateko baldintzak.
019-PROTS-2024	HIERROS Y METALES GUTRAM, S.L.	EEHn elementu ferrikoak bereizteko gailua erostea, ondoren baloratzeko eta kalitate handiko EEHetan merkaturatzeko.	Enpresak ez ditu betetzen onuradun izateko baldintzak.
039-PROTS-2024	SOL HIDROGENO VERDE, S.L.	Arrainen lonjetan jatorrian dauden biohondakinak balorizatzeko bideragarritasun-azterketak	Lerro eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko diruz lagun daitekeen muga gainditzen du.
044-PROTS-2024	GANADERÍA ARTEA, S.L.	Bildosolako betelana paisaian integrazteko proiektua, abeltzaintza-erabilerarekin bateragarri egiteko, Arantzazuko udal-mugartean (Bizkaia).	Ez da dirulaguntzaren helburua.
045-PROTS-2024	SOL HIDROGENO VERDE, S.L.	Udal lorezaintzako zerbitzuetako biohondakinak jatorrian balorizatzeko bideragarritasun-azterketak	Lerro eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko diruz lagun daitekeen muga gainditzen du.
046-PROTS-2024	SOL HIDROGENO VERDE, S.L.	Abastos Merkatuan dauden biohondakinak jatorrian balorizatzeko bideragarritasun-azterketak	Lerro eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko diruz lagun daitekeen muga gainditzen du.
048-PROTS-2024	SOL HIDROGENO VERDE, S.L.	Sukalde zentralako biohondakinak jatorrian balorizatzeko bideragarritasun-azterketak.	Lerro eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko diruz lagun daitekeen muga gainditzen du.
049-PROTS-2024	SOL HIDROGENO VERDE, S.L.	Jatorrian biohondakinak balorizatzeko bideragarritasun-azterketak HHS TRANSFERENTZIA-ZENTROETAN. ORGANIKOAK.	Lerro eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko diruz lagun daitekeen muga gainditzen du.
051-PROTS-2024	SOL HIDROGENO VERDE, S.L.	Nekazaritzako elikagaien industrien biohondakinak jatorrian balioesteko bideragarritasun-azterlanak.	Lerro eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko diruz lagun daitekeen muga gainditzen du.



052-PROTS-2024	RESIDUOS LEMONA SOCIEDAD LIMITADA	Hondakin plastikoen kudeatzailearen jarduerari ekiteko pabiloia egokitzea	Ez da dirulaguntzaren helburua.
057-PROTS-2024	HIJOS DE JUAN DE GARAY, S.A.	Inbertsioa olioztatze-upel berrian, IT teknologiarekin, olio erreaktiboa berreskuratzeko	Deialdi honetan bertan aurkeztutako bideragarritasun-azterlan baten mende dago.



## V. ERANSKINA: ATZERA EGINDAKO PROIEKTUAK

Espediente zk.	Titular Eskatzailea	Proiektua
014-PROTS-2024	ZORROZA GESTION, S.L.	Hondakin izaeraren amaierako baldintza-sistema ezartzea
015-PROTS-2024	ZORROZA GESTION, S.L.	Sare orokorrera isuritako galauts eta mikro plastikoen arriskuak ezabatzea
021-PROTS-2024	HIERROS Y METALES GUTRAM, S.L.	EEH hautatzeko eta bahetzeko goi-mailako iraulketa bahetzeko gailua eskuratzea
029-PROTS-2024	ZUTIKZAUDELA, S.L.	Bigarren bizitza liburutzat. Negozioaren hobekuntzak.
030-PROTS-2024	ZUTIKZAUDELA, S.L.	Hirugarren bizitza liburutzat
036-PROTS-2024	SEINAKO, S.L.	Industria-pabiloiko estalkiaren eraberritze osoa (Aizpurua autokarrak, Usurbil)
038-PROTS-2024	GALVANIZADOS ALAVESES CABA, S.A.	Gasteizko hegoaldeko pabiloian zuntz-zementuzko estalkia kentzea
059-PROTS-2024	CIE AUTOMOTIVE GOIAN, S.L.U.	Forjaketako estanpazio-lerrorako bi xurgapen- eta iragazketa-talde eskuratzea, tximinia bidez iragazitako airearen irteerarekin